

**JOSE ARAKISTAIN ETA MIGEL ZUZAETA
XVIII / XIX. MENDEETAKO KARMELDAR BI IDAZLE**

Badakigu joandako denboraren mende geratzen direla hainbat pertsona gogoangarri. Hauetariko asko, tamalez, betiko ahaztuak izan ohi dira, ikerlari finen batek distira betean irakurleen bistara atera ezik.

Hilabete eta erdi edo bi hilabete izango dira KSren (Karmel Sortaren) 10. alea argitaratua dela. XVIII. mendeko bi euskal idazle agertzen dira liburu honetan; ez hain ezagunak, baina euskal kultura eta idazle munduan euren lekutxo merezi dutenak: Aita Migel San Frantziskorena (Zuzaeta) (1745-1814) eta Aita Jose Jesus-Mariarena (Arakistain) (1700-1764), biak Karmeldarrak.

Haien gaiak XVIII. mende honetan oihartzun berezia izan zuten: sermoigintza eta hiztegigintza. Arakistain (Itziarkoa) zuenki Larramendiren (1690-1766) hiztegigintzarekin loturik ezagutzen dugu... Aita Migel, berriz, A. Kardaberaz (1703-1770) eta S. Mendiburu (1708-1782) gipuzkoarren bidetik doa sermolarari den aldetik, baina Aita Migel bizkaitarra da, Gerrikaizkoa, eta bizkaieraz idazten ditu bere sermoiak.

Karmeldar biok lotura nahiko estua dute Markina herriarekin: Arakistain, 18 urteko gazteak, Markinan hartu zuen Karmelgo abitua, nahiz eta nobiziatua Iruñean egin. Baina batez

ere Aita Migel da Markinarekin lotura estuagoak dituena: hemendik kilometro gutxira jaio zen, hemengo komentuan bizi izan zen urte luzeetan (1777-1809), eta hemen idatzi zituen goian aipaturiko liburu horretan datozen sermoiak.

Dena dela, Aita Migel ez da euskal idazle edota sermolari bakarra Markinako Karmeldarren artean: honen komentuko lagun batek idatzia da gaztelaniaz eta euskaraz liburu hau "Guía de colmeneros o tratado práctico de abejas"... "Erle Gobernatzailen Guidariya, edo erleac gobernatzeco modua"... hainbat urte geroago argitaratua, 1827an. Eta batez ere Aita Bartolome Santa Teresarena aipatu beharra dago, entzute handiko euskal idazle eta sermolaria, hainbat urtetan Aita Migelekin Markinako komentuan bizi izan zena, hau baino askoz gazteagoa izan arren...

Aita Migel hor agertzen zaigu, ez Markinako beste Karmeldar sermolari eta idazleen artean soilik, baita Euskal Herriko beste askoren artean ere: goian aipaturiko Kardaberaz eta Mendiburu, Joan Antonio Ubillos, 1707-1789, Martin Duhalde (1733-1804), Joan Bautista Agirre

(1742-1823), Jose Ignazio Gerrico (1740-1824), Pedro Antonio Añibarro (1748-1830), Pedro Astarloa (1751-1821), Joakin Lizarraga (1748-1835), Joan Mateo Zabala (1777-1840), Joan Antonio Mogel (1745-1804), etab. ditu garaikide.

Euskal Idazle karmeldarrak

Frantzisko Ondarra da Fr. Migelen bizitza eta lana aztertu dituena eta Antonio Unzueta Fr. Jose Arakistain-i dagokiona aztertu duena. Aita Migel hain ezaguna ez bada ere, bere-berea zen ekarpena eskaintzen dio euskal munduari. Aita Ondarra euskaltzainak lan ederra egin du: Sarreran Aita Migelen datu biografikoak agertzen dizkigu eta haren euskarazko 19 sermoien iruzkin linguistikoa egin ondoren, sermoien testuak argiaratzen ditu, ohar askorekin horniturik; azkenez, Aita Migelen Hiztegi eta Adizkitegiarekin osatzen du bere lan zehatza.

Aita Arakistain ezagunagoa dugu, batez ere Larramendiren Hiztegiari eginiko eranskinagatik. Baina Antonio Unzuetak beste zertzelada ugari eskainiz, hainbat kargu bere gain izan zituen pertsonaia hau hobeki ezagutzeko bidean jarri gaitu: haren bizitzako gorabeherak eta harek idatziriko beste testuak, euskaraz eta gaztelaniaz, nahiz eta zati batzuk baizik ez izan.

*

Bizitza eta lana

Jose Jesus-Mariarena

(Arakistain, 1700-1764)

Itziarren jaio zen eta 1700eko ekainaren leian Itziarko Andre Mariaren parrokiari bataiatua izan zen. Frantzisko Arakistain eta Maria Aspillagaren semea. Sei neba-arrebetatik hirugarrena dugu. Mutiletatik zaharrena. Jose Antonio du izena, baina "Jose" izenez da ezagunagoa, bai Ordena barruan eta baita Ordenatik at ere. Bere izeneko leinu-etxeko maiorazkoa izan arren, karmeldar sartzeko erabakia hartzen du. Beraz, bere bokazioaren komentzimendu sakona zuen, dirudienez. Markinako komentuan sartzen da 18 urte zituela eta hemen hartzen du karmelgo abitua 1718an. Urte batzuk lehenago sortua zen komentua hau, 1691n. Nobiziatua eta profesia Iruñean egin zituen. Profesia ondorengo urtea, Tuteran egingo zuela uste da. Gero, filosofiako ikasketak Logroñon eta teologiakoak Iruñean. 1732 inguruan hasita irakasle izango dugu, lehenengo filosofiakoa Logroñon eta gero teologiakoa Iruñean. Hainbat urte egin zituen irakasle, ikastetxeko errektore ere izan zelarik. Frantziakizun handiko karguak izan zituen Karmeldarretan, hauen artean esanguratsuenak, definidore jenerala eta geroxeago Nafarroako San Joakin Probintziako probintzial. 1750ean Erromara doa, Nafarroako Karmeldarren probintzia desegiteko bulda indarrean ez jarteko ahaleginak egitera. Logroñon hil zen 65 urte zituela, 47 urte karmeldarretan egin ondoren.

Jose Arakistain irakurle handia izan zen, haren gairik gogokoena mistika, teologia moral eta historia izanik. San Joan Kurutzekoa sakonki aztertu zuen. Ohar nekrologiko batek honako hau dio:

"[...] estos últimos años se dedicó tanto a la theología mística que no levantaba cabeza de Nr.P.S. Juan de la Cruz, y aun estaba escribiendo para su mejor inteligencia, sobre lo que dexo mucho trabajado".

Baina Jose Arakistain, euskal kulturaren eta euskal lexikologoaren artean, Aita Manuel Larramendirekin eskutitzez izandako harremanengatik eta honen hiztegirako egindako eranskinagatik egin da batez ere ezagun. Hiztegiaren berrargitalpenean gogo jarritz bidali zion Arakistainek eranskin hau Larramendiri. Baina, jakina denez, hiztegi hau ez zen berriro argitaratu eta geroago, urteak joan eta urteak etorri, R.M.Azkuek erabili zituen zerrenda horiek bere hiztegirako. Luis Mitxelenak, Azkuearen hiztegiaren sarreran hauxe diosku:

"En la historia de la lexicografía vasca no hay muchas obras comparables en abundancia, exactitud y variedad a los `Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. fray José de María, Carmelita Descalzo', Araquistain o Araquitzain de apellido, y natural al parecer de Iciar, que fueron publicados por el P. Fidel Fita, S.I., en Barcelona, Revista de Ciencias Históricas, 11-111, en 1881".

Horrez gainera, Itziarko Andre Maria eta honen Santutegiari buruz idatzi zuen. Hango kofradiaren eta seroren araudia ere beronek idatzia dirudi. Baina gai hauek gaztelaniaz idatzi zituen. Euskaraz, Itziarko Amaren omenezko kanta bat gelditu da: "Agur Iziarco" hitzez hasten dena; latinezko "Ave Maris Stella" kanta ezagunaren itzulpena da, santutegi hartarako egokiturik. Aita Larremendiren ohoretan egindako beste bertso batzuk ere ezagutzen ditugu. Besterik ez da oraingoz eskuratu ahal izan. Baina gaur ezagutzen ditugunak baino hainbat

gehiago idatzi zuena gauza jakina da. Hona, esaterako, Karmelo Etxegarai-k 1893an idazten zuena:

- "Muy contados entre los hijos de la Euskaria han escrito la prosa vascongada con el vigor y soltura con que la escribió el mencionado religioso...: un modo de decir gallardo, pintoresco, rico de expresiones gráficas, remozado al contacto del pueblo..."

- "Fue muy celoso investigador, conocedor profundo del vascuence, que manejaba con admirable dominio, infatigable en registrar voces ignoradas de esa lengua milenaria..."

- "Alguna vez consagró sus ocios a la poesía, ora grave y melancólica, ora festiva y risueña".

A. Migel San Frantziskorena

(Migel Ignazio Zuzaeta, 1745-1814)

Goian aipatu dudana KSKo liburuan, honelaxe dio Frantzisko Ondarra euskaltzainak eta edizioaren prestatzaileak:

"Esan daiteke Fr.Miguel de San Francisco ez dela ezaguna gure artean, berari buruz berri laburren bat eman bada ere. Oso gutxi dakigu beraren bizialdiaz, baina beharbada ez gara gehiegi saiatu Bizkaiko euskara jatorrean idatzi zuen XVIII. mendeko idazle honetaz berri gehiago lortzen

Munitibarren jaio zen 1745. urteko irailaren 28.ean, eta baitaioan Migel Ignazio izena ipintzen diote. Gurasoak Juan de Zuzaeta, Gerrickaitzko semea, eta Maria de Dondiz, Mendatako alaba dira".

1764an Korellan dago eta bertan hartzen du karmeldar abitua 19 urte zituela. Nobiziatuko urtea ere Korellan egingo zuela pentsatzekoa da. Filosofiako hiru urteak Logroñon egin zituen, eta Teologiako beste hiru urte Iruñean. Hemen hartu zuen apaizgintzako ordena sakratua 1769an. Eliz ikasketak amaitu ondoren, ikaslerik saiatuenek gehiago ikasteko abagunea izan ohi zuten, gai batzuetan sakontzeko. Aukera hori

eman ohi zitzaien, esaterako, gero irakasle, sermolari etab. izan behar zutenei. Aita Migelek ere, sermolari izan zen eta, aparteko ikasketa horiek egingo zituela uste dugu.

Markinan agertzen da 1777. urtetik 1809.era arte, Fr. Bartolomeeren komentukide azken data horretan. Aita Migelek berak dioskunez, 1778ko martxoaren 15ean Markinan sermoi bat idatzi eta bertan predikatzen du. Honela diosku:

“Fr. Miguel de S[an] Francis[co] año de 1778, compuso en Marquina, y lo Predico en la Parroquia de d[ic]ha villa a 15 de Marzo de dicho año”.

Hau da ezagutzen ditugunetarik lehenengoa. Gernikan, Mundakan, Lekeitio eta batez ere Markinan egin zituen sermoiak A. Migelek. Beste herri batzuetan ere egingo zituen, beharbada, baina Frantzisko Ondarrak eskuratu dituen paperetatik ez da gainerakoen berririk jaso. Esan dugunez, lehenengo sermoia Markinan egin zuen, 1778an, eta azkenengoa ere bertan, 1808an.

Fr. Bartolomek Ordenako Jeneralari komentuko berri ematen dio Frantsesak sartu ondoren, 1808an. Txosten horretan, komunitatea osatzen zuten erlijiosoen artean Fr. Migel ere agertzen da. Fr. Bartolomek aurrerago dioenez, 1809.ean komentutik jaurtia izan zen Fr. Migel eta Mendatan hil zen. Frantsesen gerratea zela eta, komentutik kanporatua izan ondoren, Lekeitioko jaun batek, Bizkaiko Jaurerriko abokatu ospetsu zen batek, babestu zuen eta haren babespean hil zen. Zaldun hori Zeledonio de Axpe da. Hona Fr. Bartolomek dioena:

“La istoria es deudora a la buena memoria de los especiales Bienechores, entre los quales se pone al Sr. Dn. Celedonio de Axpe de la villa de Lequeitio, distinguido Abogado de este Señorío de Vizcaya, quien s[iem]pre ha protegido a esta casa, y a sus individuos, y lo está practicando; Este caballero Cristiano despues de vertirle de clérigo decentem[en]te al P.Fr.Miguel de Sn. Francisco, le franqueo su casa, y mesa, y aun le asigno

idazten du bizkaieraz, gure ustez, eta erabiltzen duen gaia Kristau Ikasbidearen azalpena da" dio Aita Ondarrak.

KS.ko liburu hau txukun argitaraturik dago, sorta honetako gainerako guztiak bezala. Liburu hau, batez ere Fr. Migeli dagokion parte, oso baliagarri izango zaiela uste dut unibertsitatean eta beste toki batzuetan bizkaiera zaharra aztertzen ari direnei. Kontuan izatekoa da Fr. Migel 1745ean jaio zela; hau da, Joan Antonio Mogel, *Peru Abarkaren* egilea, jaio zen urte berean. Interesgarri litzateke biek erabiltzen duten euskararen erkaketa egitea, edota Markinako komentuan berarekin bizi izan zen Fr. Bartolomeren euskararekin konparatzea. Hau Fr. Migel baino 23 urte gazteagoa zen. Mogel eta Fr. Bartolomeren artean, bakoi-tzaren estilo eta nortasunari zegozkionak alde batera utzirik, euskararen bertan, alde handirik ez den bitartean, Fr. Migelen eta beste bien artean bada alderik. Batzuk, nabari-nabariak; esaterako, "f" kontsonantearen erabilera. Xehetasunetara joz gero, mendebaldeko bizkaieraren formak eta lexikoa ere agertzen dira Fr. Migelen sermoietan; Joan A. Mogel eta Fr. Bartolomerenak baino forma arkaikoagoen kutsua dutenak. Dena dela, oraingoz ez gara oihan horretan sartuko eta, une honetan, argitalpenaren prestatzaileei eta argitaratzaileei zorionak eta eskerrak ematea besterik ez zait geratzen. K.S. (Karmel Sorta), Joan Mari Torrealdairen *Euskal Kultura gaur* liburuan agertzen ez bada ere, 10. alera iritsi da, urtero euskal irakurleei ezusteko pozgarriak emanaz eta Teresa Lisieuxkoaren Idazlan guztiak euskaraz argitaratzean gailurra jorik. Halaxe jarrai dezala urte askotan.

Luis Baraiazarra